# LABIRINTOA

AL BORDE FILMS

AMAIA BALLESTEROS



**LABIRINTOA**
2020ko urria

**REAS Euskadi**
Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Ekonopolo. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa
Harrobia Plaza 4, 48003 Bilbo
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.reaseuskadi.eus
Sare sozialak: @REASEuskadi

**ALBOAN**
Padre Lojendio, 2 - 2º • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Fax: 944 161 938
Avenida Barañain, 2, 31011 Pamplona
Tel.: 948 231 302 • Fax: 948 264 308
C/ Andía, 3, 20004 San Sebastián
Tel.: 943 275 173 • Fax: 943 320 267
Monseñor Estenaga, 1, 01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Fax: 945 202 676
alboan@alboan.org
www.alboan.org
Sare sozialak: Facebook: @alboan • Twitter: ALBOANongd • Youtube: alboan.tv

**Gidoia:** Ana Serna, Marta Gómez (Al Borde films)
**Marrazkiak:** Amaia Ballesteros
**Gidoiaren berrikuspenak:** Paula Iglesias (Al Borde films)
**Esker on berezia:** Mitxe, Andrea Momoitio, Júlia Martí
**Itzulpena:** Belaxe, Koop. Elk.
**Argitalpena:** Gráficas Uncilla S.A.
**Lege-gordailua:** BI 01518-2020

**Finantzatzaileak:**

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Komiki hau Alboan GKEk eta REAS Euskadik argitaratu dute, "Ikaszabaltzen II: ezagutza eta diskurtso kritikoa sortuz Latinoamerikako eta Euskadiko ekimen ekonomiko solidario, sozial eta feministen praktikatik", Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuta.

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu

BY NC SA

# LABIRINTOA





Zailtasunak zailtasun, bide bati
ekin zioten Karla eta Sule guztiei.
Zalantzak dituzten eta bestelako mundu bat
posible dela sinesten duten pertsona guztiei.
Txikiei bidean laguntzen dieten eta ibilbideak
merezi izatea lortzen duten erakundeei.


Orain, mundu erreala duzue zain.
Oso une berezia da; aprobetxatu aukerak.
Honen falta sumatuko dut...
Neuk ere bai,


Publizitatea
Harreman Publikoa
UPV EHU


URTEBETE GEROAGO...
InfoLan
Nola doa bilaketa?
Zure familiarekin lan egin? Baita zera ere… Eta, bide batez, andregai-soinekoa bilatuko dut?


BI URTE GEROAGO...
6:59
GOIZEKO 7AK DIRA, ASTELEHENA DA, ETA EGURALDI TXARRARI AURPEGI ONA IPINIZ ABIATZEA EGOKITU ZAIGU.
EURIA, HOTZA ETA HAIZE ZAKARRA ESPERO DITUGU.




BRRR...
BRRR...
Karla! Zer berri?
Zenbat denbora
elkar ikusi gabe!!!
Ukondo-urratzaile!!!
Ondo ala kontatu egingo
dizut? XD Besterik gabe,
beharrelik etxera bueltan…
Eta zu?
Tira, hortxe-hortxe… Familiak
enpresa itxi du; beraz… hilabete
daramat «behartutako oporretan».
Zer diostazu,
baina??!


Azken urteotan, ateak itxiz joan dira auzoko enpresak... Denbora kontua zen gureak ere beste horrenbeste egitea...
EZIN GARA HANDIEKIN LEHIATU.
Nirea handikoa da.
Zurea eta gehienak.
Milaka aparteko ardo sartzen ditugulako egiten dira handi... Edozein egunetan, ospa egingo dut handik...
Ez izan nagia...
BENETAN ARI NAIZ! Lanerako bizi naiz...
Eta, zer egiten duzu zehazki?
Inoiz probatu ez ditudan produktuez gezurrak esan.


Akordatzen unian egiten genituen publizitate-aurkezpenekin?
Crack galantak ginen... Geure agentzia sortu beharko genuke...
Bai..., sormen handiko kanpainak egiten genituen.
Benetan... eta enpresa bat sortuko bagenu?




Esna zaude, ukondo-urratzaile?
Ping!
Ping!
Ikusi hau.
EKINTZAILETZARI BURUZKO HITZALDIA
EKIN ZER? Goizaldeko 3ak dira, Karla, burua joan zaizu, ala?
Bai, zera... Egin dezagun, Sule.


EKINTZAILETZA: Kasu arrakastatsuak
Ikusi, nire nagusia.
BI ORDU GEROAGO...
BI EGUN GEROAGO...
...gainbalio hori sortzeko prozesuan, hainbat galdera sortzen dira, eta merezi du horiek aztertzea...
BI ASTE GEROAGO...
Ulertu ulertzen dut; baina, kalkulu horiekin, zerbitzuaren prezioa gehiegi hazten da.
Merkatu-prezioak gainditzen ditugu. Eta ezin ditugu kostuak gehiago jaitsi...
Kopuruak ondo daude; agian, zuen negozioa ez da errentagarria.
Sistema horrek ez digu balio.
Ez gaituzte ulertuko eta mila urtean ere.
EKINTZAILE IZAN NAHI?
ZENTZUA
Friki samarra, ezta?



Hao beheraldia... Hitzaldi horixi armairu itxiaren usaia darie...
Galdetze hutsagatik burutik jota zaudela sinestarazten
IZAN NAHI?
EROENTZAT BAKARRIK
Sarreraren prezioa: ZENT
Ikasi arauzkoa desarautzen.
SARRERA
Ziur zaude?
Tira, ez izan kakatia!
Itxaron!


Ongi etorri labirintora.
Jakin nahi duzuelako zaudete hemen, ezta?
Jakin ez, ekin...
Hemen, gauza bera esan nahi dute.
Besterik gabe ekin nahi baduzue, hementxe amaituko da zuen bidaia; jo atzera.
Baina, ekin eta jakin nahi baduzue, gurutzatu labirintora ematen duen atea.
Zeuek erabaki.
Arraro samarra guztia, ez?
Agian, escape room moduko bat da... Ondo egon liteke.
Tira, ba, goazen barrura...


Hemendik aurrera, amaitu arte ezingo zarete atera.
Zuen beharretara egokitutako probak proposatuko dizkizue labirintoak. Funtsezkoak izango dira ekiteko.
Labirintoak esana!
Ez izutu. Jarraitu Aniyel, hurrengo helmugara eramango zaituzte eta.
Zoragarria da hau...
Jarraitu egingo diegu, ezta?
Bai, goazen!


Horra igo behar dugu.
Ufa.
Ados, lankidetzan hobeto ekiten da... Ulertu dut.
Pare-parean...


Scape room hau sinestezina da.
Atsegin duzue, ezta? Gutako bakoitzaren zertxobait bat du...
Beno, enpresa bat sortu nahi dugulako gaude hemen...
Oso ondo; eskubidea duzue.
Zer esan nahi duzu?


Galdera handien erantzunak jakitea komeni zaizue.
Zer galdera?
Zer?
Zertarako?
Eta, garrantzitsuena. Nola?
"Nola?"
Nola egingo duzuen. Badakizue zein diren zuen haziak? Hemen, gureak ditugu Aziak. Honaino lagundu dizuetenak dira... Horietan oinarrituz hazten da guztia.
Ez dut ulertzen.
Haziak nolakoak, halako eragina izango duzue gizartean.
Ez dakit... Ez dugu mundua aldatzeko asmorik; oso enpresa txikia izango gara.
Ikuspegia behar duzue... Kanpoan aurki dezakezuenaren isla da labirintoa.
Zuen Aziak topatu behar dituzue; formula aurrefabrikatuetan eroriko zarete bestela...
...formula, zer?
Arraro sentitzen naiz. Zer dauka te honek?


Eta, orain, non arraio gaude?
Zertan zabiltza?
Ikuspegi bila.


Itzela!
KARRAA!!
Aizu...
Karla...
KARRAAA!!
KARRAAA!!
AAAAAA!!
Ufa... Harrapatu gaitu ia.
Ez horregatik.
Hau ez da toki egokia hain izaki txikientzat. Nola iritsi zarete honaino?


Orain txarra hartzen diot leku horri...
Ez kezkatu, hori ez da itzuliko. Nirekin ez zaizue ezer gertatuko.
Zuhaitzeko emakumearekin geunden, eta...
Ezagutzen dut emakume hori.
Hark eta bere ditxosozko haziek suntsitu egin nahi dute nire sail ederra.
Emakume ona ematen zuen.
Eta loreak zer dira zehazki? Ez dute oso... naturalak ematen.
Emakume hori sorgina da. Eta landare exotiko hauek inportatuak dira. Apaingarri moduan erabiltzeko ezin hobeak.


Nola surtsituko dituzte, ba, Asiyek zure landareak? Ez dute batere egiteko itxura handirik.
Hala da; baina, loreen artean sartu, guztia nahastu eta belar txarrez eta landare itxuragabeez betetzen didate saila. Esandakoa: deskalabru galanta.
IKUSI.
Handia, perfektua eta liraenkorra. Labirintoak nahi eta behar duena. Zaporea... tira, ez dago txarto; baina dokuentza batzuk egin behar dizkiogu oraindik.
Hegaztiei eta izurriteei aurre egingo dieten barazkiak behar ditugu. Ez zaizue garrantzitsua iruditzen? Eta ez ezertarako balio ez duten belar txarrak.
Ummm... Ez dakit... Artifizialegia ematen du denak... Ona dago?
Ez nuke asmatuko zer den esaten...
Labirintoak nola beharko du, ba, zaporerik ez badu?
Publizista ona izango zinateke. Baina, nekazaria... ez dakit...
Frutak itxusia izan behar du zaporetsua izateko, ala?
Zer? Nork esan du hori?
UTZ ITZAZU HEMEN!
KARRAAA!!
KARRAAA!!
EZ DUGU AMAITU!!


EEEEEEZ!!!
Ez egin kasurik zoro horri.
Ez mugitu hainbeste, erori egingo zarete eta.
Jakina, hobe da bele bati kasu egitea.
Baina, nora garamatzazu?
Hemendik aterako zaituztet, horiek zuek fumigatzen edo laneko merkatzat erabiltzen hasi aurretik.
Aziak... Zertan ari dira? Akabatzen ari dira! Jaitsi!
Karla, ñimiñoak gara; gu ere suntsitu egingo gaituzte!
Nik sutan ditut birikak... eta ez dut haien fruitu zaporegaberik jan nahi!!!
Halaxe da beti. Handiak txikia jaten du, bai labirintoan eta bai handik kanpo ere.
Harrituta? Lehia da aukeraketa naturalerako mekanismoa.
Ez du zertan hala izan! Ez da lehiaketa bat.
Hementxe geratuko zarete, ameslari txikiak. Zorte on!


Hau jada ez dut batere atsegin. Ez genuen txolopote honetan sartu behar.
Tira, Karla, ezin dugu atzera egin. Bagenekien zaila izango zela.
Baina ikusi dituzu makina horiek? Ospa egin behar dugu hemendik.
Esango nuke belea tartean dagoela; biok artean, kikildu egin nahi gaituzte, amore eman dezagun. Baina, arrazoi duzu; pentsatu...
PIIIIIIIIII
PIIIIIIIIIIIII
BEGIRA!
HAU ZALAPARTA!
Hortik zoratuta ere ez.
Igokaritik.
PIIIIIIIIIIII
Boazen, ukondo-urratzaile!


Nora joango ote gara orain?
EKITEN JARRAITU NAHI BADUZUE, TE HAU EDAN EZAZUE.
Topa!
Gure negozio-plana da eta!
Balantzea, kontuak, emaitzak... Amaituta dago!
Azkenean, proiektua aurreratuta aterako dugu leku honetatik.
ERROREA, INFORMAZIO GUTXIEGI.
BEHARREZKOAK DIRA F-YSI ZIURTAGIRIA, KOPIA KOMPULTSATUA ETA ENPRESAREN ADMINISTRATZAILE IZATEAREN AITORPENA. INFORMAZIO GEHIAGO LEHIATILA ARROSAN.
Txantxa izango da, horratik!


F451 ziurtagiria behar dugu.
Horretarako, bete agiri hau eta Datuen Babesari buruzko Legearen aplikazioa. Leihatila urdina.
DBLagatik zatozte? Landa Arriskuen Plana ere beharko duzue, entitate baimendu batek sinatuta. Leihatila berdea.
ITXITA
Barkatu.
Atsedenaldian nago, polita.
Zure sinadura behar dugu planean.
Premiazkoa da...
Ondo da... Baina azken aldia izan dadila.


Dena dago.
NEGOZIO PLANA
ERROREA. ERROREA. ZENBAKI OKERRAK. PLAN ERRENTAGARRIA, BAINA EZ JASANGARRIA.
ERROREA!


Ez dut ulertzen; dena ondo dagoela ematen du.
Atsedena behar dut.
HORIXE DA!
Ez ditugu atsedenaldiak aintzat hartu.
BI ORDU GEROAGO...
KARGATZEN-KARGATZEN KARGATZEN...
Berriro kalkulatu dugu guztia, atsedenaldiak, oporraldiak eta abar aintzat hartuta.
NEGOZIO-PLANA AMAITUTA.
KLANK!
AUPAAA!
AIZU!


Hortxe besterik ez genuen behar...
Non gaude?


Azken proban zaudete. Besterik gabe ekitera bazoazte, lehen oztopoan etsiko duzue, eta, zerbait okertzen denean, porrot egin duzuela pentsatuko duzue.
Motibazio sakonagoak badituzue, berriz, oztopoak probak irudituko zaizkizue, abiatu baino egin ez den joko baten probak.
Nahi duzue etorkizuna ikusi?
Negozio-plana simulatzailean sartuko dugu, zer arrisku dagoen ikusteko.


Enpresek zerbait kalkulu egiten dituzte, arrisku edo inpaktu onargarria ezartzeko; hau da, ematen ari diren pausoak errentagarriak diren ala ez jakiteko.
Ondo edo txarto joango zaigun ikusi ahal izango dugu?
Edo, azterketa ekonomiko hutsetik ateratzea lortzen badute, jasangarriak ala errentagarriak soilik diren jakiteko.
Bophaleko hondamendia da adibide bat. Ez dakit ezagutzen duzuen, baina Indian istripu bat gertatu zen, 1984an, pestiziden lantegi batean —erdi indiarra erdi estatubatuarra zen—. Segurtasun-neurriak urriak zirenez, milaka pertsona hil ziren hondamendian. Hutsala izan zen enpresaburuek ordaindu beharreko isuna. Ulertuko duzuenez, laneskua AEBn baino nabarmen merkeagoa zen.
Simulatzailearen adibide makroetako batzuk dira hauek. Ulertu behar duzue behin negozio-planaren aldagaiak sartutakoan arrisku asko onartzen direla.
Honetaz jabetuz gero, arduratsuagoak izango zarete.
Baina gure enpresa txikia izango da: gure inpaktua sekula ez da izango hain handia.
Kaosaren teoriaren arabera, tximeletak planetaren alde batean egindako hegadak tsunamia eragin dezake beste muturrean.
Haizearen alde joatea beti da errazagoa.


URGENTEA
SALEK
Hornidurak eta Ordezkoak
Horixe da gure familiaren denda.
Ikusi, ekintza guztiak dira garrantzitsuak.
Eta guztiak axola du garapen jasangarri orokorrean.
Baina enpresa batzuk ez dira ohartzen xede horretan duten garrantziaz.
Gizalegezko enpleguak sortu behar direla...
...edo kontsumo- eta produkzio-modalitate arduratsuak sustatu behar direla?
AGENDA 2030
Zuen ustez, zenbat enpresak hartzen dituzte kontuan Garapen Jasangarrirako Helburuak?


Iritsi da ordua. Sar dezagun, ba, zuen plana simulatzailean.
Klonk!
Hondatu egin da?!
Dena txarto egin dugu ala?
Simulatzaileak aldagaiak baino ez ditu eskaintzen, eta paperak guztia onartzen du. Eguneroko jarduna eraiki eta berreraiki egin beharko duzue.
Hemendik aurrerakoa da garrantzitsuena, zuen uste sendoen arabera hartzen dituzuen erabakien ondoriozkoa.
Inoiz ez utzi galderak egiteari.
Nahiz eta burua galtzeko zorian egon.
Ding!
AAAAAAAA!!




Entzun: "Kanpaina arrakastatsua izan da".
ARRAKASTATSUA.
Diotenez, espero gaituzte enpresa txikien jasangarritasunari buruzko REASen jardunaldietan ere, "Tamaina garrantzitsua da" izenekoetan, bla, bla... eta hauxe erantsi dute: "eskerrik asko berriz ere, plazer bat izan da zurekin lan egitea".
Hilaren 17an eta 18an dira jardunaldiak.
Jénnifer Ávila dator.
Uf! Bertan dira!
Contra Corrientekoa?!
Ze pena! Lanez lepo gaude.
Transmedia narratiben gaineko lantegi bat ere emango du.
AZIYAK


ORDU BATZUK GEROAGO...
AZIYAK
Uff, ados, bai. Kartarekin hitz egingo dut, eta ikusiko dugu zer egin.
Ondo da. Agur.
Zer gertatu da?
Kaka-mokordo bat.
Dena ezin hobeto kalkulatuta genuen eta... Ez da hutsegite bat?
Gizarte-segurantzarekin ahaztu egin gara, horixe da kontua. Eta, orain, ez daukagu dena batera ordaintzeko adina.
Horregatik, BEZaren ordainketa atzeratzea proposatzen digu aholkulariak.
Baina, orduan, txarto egin ditugu aurtengo aurrekontu guztiak! Nola gertatu zaigu hau...
Iaz ez genuen inor kontratatu, eta horregatik ez diogu horri erreparatu aurrekontu berrietan.
Eta ez handiegietan sartu bagara?
Zer?
Gurea publizitatea da, ez dakigu ezer enpresez.
Ikuspegia behar dugu.


TAMAINA GARRANTZITSUA DA:
ENPRESA TXIKIAK
ERAKUNDE BIZIGARRIAK
reas
JENNIFER ÁVILA
Eta horregatik elkartu zarete zuek hemen, ibilbide ezberdinetako enpresak, zalantzak eta baliabideak biltzeko, begiak bizitzaren iraunkortasunean ipinita. Izan ere, tamaina garrantzitsua da...
Gure kasuan, kazetariak garen aldetik, saiatzen gara gure edukiak baldintzatuko dituen publizitaterik ez sartzen gure komunikabidean.
Beti lortzen dugulakoan? Ez, horixe. Eta hori porrot egitea da?
Ezagutzen duzue esamolde hau? Zertarako balio du utopiak? Bidea egiteko. Eta elkarrekin errazagoa da bidea.
Nahi baduzue, kanpoan jarraituko dugu hizketan. Nire lagunek eta nik neuk pozik jarraituko dugu eztabaidatzen eta aholkularitza pertsonalizatuak eskaintzen.
Ez dakit zer kontatuko diguten aholkularitzan...
Bide bera egin dute eurek ere, hasieran esan dute. Agian baliagarria izango zaigu beraien esperientzia.


...oso maite duzue zuen lana; proiektua interesgarria da, funtzionatu egiten du eta jendeari gustatu egiten zaio.
Dirua berreskuratu egiten da. Eta, zalantzarik gabe, ez duzue berriro halako hutsegiterik egingo.
Zer da, benetan, kezkatzen zaituztena?
Denbora galtzen ez ote gabiltzan... Gure balioetan katigatuta eta jasangarriak izan nahian... kaka-mokordoak bata bestearen atzetik datozkigu...
Kolibriaren istorioa kontatuko dizuet.
Moskitia, Honduras ekialdean, oihan birjina bat da. Bertan, harmonian bizi dira, oraindik, animaliak eta herri indigenak; miskitoak, adibidez.


Egun batez, sute handi bat piztu zen, eta animalia guztiek hanka egin behar izan zuten ikaratuta.
Bat-batean, kolibri bat besteen kontrako noranzkoan hasi zen hegan. Tximino, jaguar eta tapirrek txundituta begiratzen zioten zuzenean sutara zihoan kolibri txiki eta ahulari.
Halako batean, animalietako batek galdegin zion: "Burua galdu duzu ala? Kiskali egingo zara!"
"Oihana ibai batek zeharkatzen du; hegan joan eta ur pixka bat hartzen badut mokoan, sutea itzaltzen lagunduko dut".
Tukanak, hori entzundakoan, barre egin zuen: "Zoroa, ez du ezertarako balioko! Zuk bakarrik ezingo duzu itzali".
Baina kolibriak halaxe erantzun zion segurtasun handiz: "Nik neurea egingo dut. Denok gauza bera egiten badugu, lortuko dugu". Eta hegan jarraitu zuen lakurantz...
Ikusten... "Nola" ikasi egiten da; proiektuan sinestea da funtsezkoena.
Nahiz eta eroak eman.


Ihaura ona da: ingurukoek pentsatzen dutena alde batera utzi eta "zorrokatzea" da kontua, eta aldeko eraginarekin geratzea...
Baina hori teoria da. Nola egingo dugu praktikan?
Ari zarete dagoeneko.
Galdetu, elkartu, gainbegiratu eta hanka sartu.


Publizitateaz eta komunikazioaz dakigu guk; zer gertatuko da ohartzen bagara enpresarekin ez garela ondo moldatzen?
Epe bat jar dezakegu erabakitzeko.
Izan daiteke. Egoera horri egokitzen zaizkion helburuak ipiniko ditugu, eta, funtzionatzen ez badu, ateak itxi eta kito.
Zure ustez, funtziona dezake, Jennifer?


RIIIING!
Zerbait espero duzu?
Ez.
AZIYAK
Ikasten dutenentzako eta burua ez galtzea espero dutenentzako simulatzailea.
AMAIERA

Karlak eta Sulek ikasketak amaitu berri dituzte: Publizitatea eta Harreman Publikoak, hain zuzen. Ilusioz eta proiektuz betetako promozio bateko kideak dira. Halere, aurkitu duten errealitatea ez da espero zuten bezalakoa. Lan-prekaritatea deritzo errealitate horri, enpresa handiek txikiak irensten dituzten mundu batean. Beren negozioa sortzeko asmoak bultzatuta, prestakuntza-ekintzetan eta solasaldietan hartu dute parte Sulek eta Karlak, baina horietan ez dute beren ideia eta kezken erantzunik aurkitu.

Gau batean, etxera itzultzerakoan, Labirintorako atearekin egiten dute topo. Zoroentzat bakarrik sortutako mundua da, eta sarreraren prezioa burua galtzea izan daiteke. Baina, bide horretan barrena, ekiteko beste arrazoi batzuk aurkitzen badituzte? Labirintoa kolorez betetako mundua da, eta bertako pertsonaia xelebre ugariek bien enpresa-proiektuko txokorik ahaztuenen simulazioan barrena eramango dituzte.

Zergatik sortuko dugu enpresa bat? Nola egingo dugu? Zer eskainiko diogu gizarteari? Zer eragin izango du gure proiektuak? Galdera horiek guztiak sortzen zaizkigu edozein ekintzailetza-proiektutan. Halere, premiaren eta baliabide-eskasiaren eraginez, azken zatia ahaztu egiten zaigu askotan. Nola sortu bizitzarekin jasangarriak diren negozio-ereduak? Ekonomia sozial eta solidarioak erakusten digu hainbat bide ditugula aukeran eta ez gaudela bakarrik, badela ekiteko beste modu bat, eta beharrezkoa dela, mundua bidezkoagoa izan dadin. Zoroentzat bakarrik ote da amets hori?

Informazio gehiago: www.reaseuskadi.eus eta https://www.alboan.org



reas euskadi

alboan